

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**424/2021 Foru Agindua, azaroaren 11ekoa, urriaren 25eko 398/2021 Foru Agindua aldatzen duena hauteskunde mahaien osaerari dagokionez, baldin eta errejidore lehendakaria edo batzarkideren bat gaixorik, kanpoan edo aldi baterako ezindurik badago, edo errejidore lehendakaria hautagai gisa aurkezten bada hauteskunde hauetan**

Urriaren 25eko 398/2021 Foru Aginduaren bidez, 2021eko azaroaren 21ean egingo diren administrazio batzarretako kideak hautatzeko egin behar diren bozketen jarraibideak onetsi ziren.

Bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak abenduaren 9an emandako 389/2020 epaiaren arabera, deuseztat jo zen Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidore eta kideak hautatzeari buruzko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren 17. artikulua; izan ere, Administrazio Batzarretako kideak izendatzerakoan adin handiagoaren irizpidea aplikatzea Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluen aurkakoa da.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta hauteskunde mahaien osaerari dagokionez, baldin eta errejidore lehendakaria edo batzarkideren bat gaixorik, kanpoan edo aldi baterako ezindurik badago, edo errejidore lehendakaria hautagai gisa aurkezten bada hauteskunde hauetan, ezabatu egiten da jarraibideetan ageri den adin handieneko irizpide hori, gainerako irizpideei eutsiz.

Horiek horrela, idatz zatia honela geratzen da idatzita:

“Errejidorea edo batzarkideren bat gaixorik, kanpoan edo aldi baterako ezindurik badago edo errejidore lehendakaria hautagai gisa aurkezten bada hauteskunde hauetan, 2017an egingo diren hauteskundeetan lortutako boto kopuruaren hurrenkeraren arabera ondoren datozen pertsonak ordeztuko dituzte mahaietan. Ordezpena adierazitako moduan egin ezin izatekotan, Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak izendatuko du ordezkoa zozketa bidez”

Horregatik, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidoreak eta Kideak Hautatzeko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorritik, eta Foru Gobernu Kontseiluak irailaren 14ko 528/2021 Erabakiaren bidez erabakitako gaikuntzaz baliatuz, hau:

#### XEDATZEN DUT

Aldatzea urriaren 25eko 398/2021 Foru Agindua hauteskunde mahaien osaerari dagokionez, baldin eta errejidore-lehendakaria edo batzarkideren bat gaixorik, kanpoan edo aldi baterako ezindurik badago, edo errejidore-lehendakaria hautagai gisa aurkezten bada hauteskunde hauetan. Azaldutakoa kontuan hartuta, honela idatzita geratzen da:

“Errejidorea edo batzarkideren bat gaixorik, kanpoan edo aldi baterako ezindurik badago edo errejidore lehendakaria hautagai gisa aurkezten bada hauteskunde hauetan, 2017an egingo diren hauteskundeetan lortutako boto kopuruaren hurrenkeraren arabera ondoren datozen pertsonak ordeztuko dituzte mahaietan. Ordezpena adierazitako moduan egin ezin izatekotan, Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak izendatuko du ordezkoa zozketa bidez”

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 11a

*Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**